

2018ko KUDEAKETA TXOSTENA.

SARRERA

Federazioak 2018an izan dituen egitekoen artean, aipagarrienetako bat izan da toki administrazioaren mapa berrantolatzeko lanak bukatzea, bi urte baino gehiago horretan aritu ondoren. Ekainaren 22an, Batzarrak onetsi zuen oniritzia ematea arauaren tramitazioari, betiere zerbitzu teknikoaren txosten bat oinarri hartuta, non konparatzen baitziren toki entitateen proposamenak eta Gobernuak aurkeztutako lege aurreproiektua. Batzarrak onartu zuen, dena dela, testuak ez zituela toki entitateen nahi guztiak biltzen, eta horrenbestez, erabaki zuen Gobernuari eskatzea, eta, horrek eskaera aintzat hartzen ez zuen neurrian, Foru Parlamentuari ere bai, zenbait aldaketa egin zitzala proiektuan. Azkenik, aintzat hartu ez ziren eskaerak Parlamentuko taldeei helarazi zitzaizkien, zuzenketa formarekin.

Urtean zehar, NUKF buru-belarri aritu da Gobernuak aurkeztutako lege eta dekretu proiektuekin, asko izan baitira, eta, horretarako, alderdi teknikoan zein politikoan jardun dugu, haien edukiak toki entitateen interes eta beharretara egokitzeko.

Orobat, berezia izan da Kontuen Auzitegiaren arazoa dela-eta egin lana; izan ere, auzitegi horrek jarduketak hasi eta espedienteak ireki dizkie, kanpainako gastuaren muga gainditzeagatik, 2015eko hauteskundeetan aurkeztu ziren 57 hauteskunde-elkarteri eta alderdi politiko txikiri. Federazioak gai horretan egin gestioek helburu izan dute Auzitegiaren jarduketan ondorioak apaltzea eta araudia bera aldatzea, hauteskundeko kanpainarik oinarritzkoena ere galarazten baitio edozein hauteskunde-elkarte txikiri.

Bukatzeko, sarrera honetan aipatu behar da entitatearen ildo estrategikoak zehazteko lanak hasi dituela Federazioak.

GOBERNU ORGANOAK

Batzorde Betearazlea

Ekitaldian, Federazioaren Batzorde Betearazleak egun hauetan egin ditu bilkurak:

- Otsailak 13
- Martxoak 13
- Apirilak 10
- Maiatzak 8
- Ekainak 5
- Irailak 11
- Urriak 9
- Azaroak 27

Haietan landutako gairik aipagarrienetako batzuk:

- Toki administrazioa berrantolatzeko mapa.
- Inbentarioen aplikazio bat ezartzea, ANIMSArekin elkarlanean.
- Laguntzen deialdi berri bat, gizarte enplegurako deialdien barnean egindako obretako materialak pagatzeko, La Caixa eta Nafarroako Kutxa fundazioen hitzarmenarekin bat.
- Lankidetzaren Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin, berdintasun arloko politikak sustatzeko toki entitateen artean.
- Administrazio elektronikoaren ezarpena.
- Etengabeko prestakuntza plana Nafarroako toki entitateetako langileentzat.
- Garapenerako Lankidetzaren arloko jarduketak.

Gai horietaz eta beste batzuek gain, Batzordeak beste proiektu arau-emaile batzuk ere aztertu zituen, Nafarroako Gobernuarekin batera, eta aurrerago zehazten diren hitzarmenak sinatzea onetsi zuen.

Izenpetutako hitzarmenak

2018an, NUKFk hitzarmen hauek izenpetu ditu, Batzorde Betearazleak erabaki ondoan:

- Protokolo bat saharar herriarekin lankidetzan aritzeko, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Nafarroako Saharar Ordezkaritzaren artean.
- Lankidetzaren hitzarmena, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artekoa, arreta goiztiarraren zerbitzua emateko.
- Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren, “La Caixa” (Caixa D’estalvis i Pensions de Barcelona) banku fundazioaren eta Nafarroako Kutxa banku fundazioaren artekoa, enplegu sozialen programen barnean egindako obretako materialak finantzatzeko.
- Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren eta Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakundearen Nafarroako Koordinatzailearen artean, sentikortasun jarduerak egiteko garapen lankidetzaren arloan.
- Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren artekoa, berdintasun arloko politikak sustatzeko esparru lokalean.
- Lankidetzaren hitzarmena, eskubide sozialetako departamentuaren eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren artean, hiru ikastaro egiteko

Batzar Nagusia

Aurreko kudeaketa txostena aurkeztu zenetik, NUKFren Batzarrak bilkura hauek egin ditu:

Batzar Nagusi Arrunta

2017ko abenduaren 15ean izan zen. Erabaki hauek hartu ziren:

- 2016/12/16ko eta 2017/6/30eko batzarretako aktak onestea.
- NUKFren 2017ko Kudeaketa Txostena onestea.
- Entitatearen 2018ko Jarduketaren Programa onestea.
- NUKFren 2018ko Aurrekontua onestea.

Ekainaren 22ko Batzar Nagusi Berezia

Aurten, beste behin, Federazioak batzar nagusi berezia egin du urteko erdialdean, besteak beste, argibideak emateko jarduketaren programaren egoeraren inguruan. Aurten, ekainaren 22an egin zen, eta hiru puntu hauek landu ziren:

- Entitatearen 2017ko Kontuak onestea.
- 2018ko lehenbiziko sei hilekoan eginiko jarduketaren kudeaketa txostena.
- Nafarroako Toki Administrazioa Berrantolatzeko Foru Legearen aurreproiektua. Horren inguruan, Batzarrak erabaki zuen oniritzia ematea Parlamentuko tramitazioari, eta, aldi berean, proposamen batzuk onetsi zituen testuak hobeki bil dezan toki entitateek prozesu parte-hartzailean adierazitakoa.

Lan-taldeak

Nafarroako Toki Administrazioaren berrantolaketa

Azken bilkurak batera egin zituzten, batetik, Toki administrazioa berrantolatzeko mapari buruzko lanak bultzatzeko eratu zen lan-taldeak, eta, bestetik, prozesu parte-hartzaileak oinarri hartuta, NUKFren proposamenak prestatzeko eratu zen lan-taldeak.

Bilkura horietan onetsitako azken dokumentua oinarritzat hartu zuen Batzarrak bere iritzia finkatzeko Gobernuaren aurreproiektuaren tramitazioari buruz eta horretan jaso ez ziren proposamenei buruz.

Kontzejuen taldea

Taldeak ez du bilerarik egin orain arte. Bat dago egiteko, NUKFk bere ildo estrategikoak zehazteko lanak noiz hasiko.

NUKFren ildo estrategikoen taldea

Toki administrazioa berrantolatzeko lanak bukatuta, Batzorde Betearazleak erabaki zuen berriz heltzea NUKFren ildo estrategikoak zehazteko burutu gabe zegoen jardunari. Epe bat zabaldu zen organo horretako boluntarioak biltzeko eta lanak zuzenduko dituen talde bat eratzeko; epea amaituta, taldea eratu da eta urriaren 22an lehenengo bilkura egin zuen.

Immatrikulatutako ondarearen taldea

Batzorde Betearazleak erabaki zuen, Nafarroako ondarearen aldeko plataformako zenbait udalek eskatu ondoren, lan-talde bat eratzea Elizak immatrikulatutako ondarea dela kausa. Taldea hirutan bildu da: apirilaren 17an, maiatzaren 22an eta urriaren 31n. Taldeak erabaki zuen NUKFk informazio agiri bat prestatu behar zuela, toki entitateei azaltzeko zein diren auzi horren aurrekariak eta zer bide duten jokatzeke, erabakiz gero jarduketaren bat egin nahi dutela.

Haur Hezkuntzako lehen zikloaren taldea (0-3 urte)

Taldeak azaroaren 14an egin zuen bilkura bat Nafarroako Gobernuko ordezkariekin, eta horiek azaldu zuten zer lan-ildo duten hezkuntza ereduaren etorkizunerako.

Herritarren partaidetza

Talde eragileak bilkura bat egin du ekitaldiko jarduerak planifikatzeko, legegintzaldiaren hasieran toki entitateetan herritarren partaidetza sustatzeko asmoz Nafarroako Gobernuarekin sinatutako hitzarmenaren barnean. Arlo horretan, honako hau egin da:

- Nafarroako Gobernuak herritarren partaidetzari buruzko lau gidaliburu argitaratzea, politika lokalaren zenbait alderdiren gainean.
- NUKFn bilkura bat egitea, non Zizur Nagusiko Udalak azaldu zien populazio handieneko udalei nolako esperientzia izan duen parte hartzeko plan bat prestatzean.
- Eskualdeetako jardunaldiak egitea, zenbait toki entitateek esplikatzeko izan dituzten esperientziak eta eztabaidatzeko etorkizuneko aukerei buruz.
- Nafarroako Gobernuak bide bat egitea, NUKFren elkarlanarekin, parte-hartzearen esperientziei eta balioei buruz.

Aurrekontu parte-hartzaileen lan-taldeak azaroaren 21ean egin zuen legegintzaldiko hirugarren eta azken saioa.

NUKFren JARDUKETAK BESTE ADMINISTRAZIO ETA ENTITATE BATZUEN AURREAN

NUKFren ordezkariak izendatzea kontseilu eta batzordeetarako

2018an, Batzorde Betearazleak ordezkari berriak izendatu ditu kontsultarako organo hauetan parte hartzeko:

- Nafarroako Futbol Federazioko Gizabide Batzordea
 - Fermín Cabasés Hita, Federazioko teknikaria.
- Nafarroako Boluntarioen Kontseilua
 - Manuel Millera Carrera, Iruñeko Udaleko Herritarren Partaidetzaren zinegotzi delegatua.
- Udaltzaingoak Koordinatzeko Batzordea
 - Itziar Gómez López, Iruñeko Udaleko Herritarren Segurtasunaren zinegotzi delegatua.
- Itunen eta Diru-laguntzen Batzordea.
 - Pablo Azcona Molinet, NUKFko presidentea.
 - Ordezkoa, Fermín Cabasés Hita, NUKFko alor ekonomikoko teknikaria.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerrriak koordinatzeko Forua.
 - Pablo Azcona Molinet, NUKFko presidentea.
 - Berta Enrique Cornago, NUKFko idazkari nagusia.
 - Juan Jesús Echaide Baigorri, NUKFko komunikazio alorreko teknikaria.
 - Raquel Garbayo Berdonces, Cintruénigoko Udaleko alkatea eta NUKFko lehen presidenteordea.
 - Jesús María Rodríguez, Ribaforadako Udaleko alkatea eta NUKFko bigarren presidenteordea.
 - Javier Albizu Sanz, Artazuko Udaleko alkatea.
 - Kulturako teknikari bat, udaletako kultura teknikariek izendatua.
- Nafarroako XXXII. Kirol Jokoak antolatzeko batzordea
 - Pablo Bolea Goñi, Tafallako Udaleko kirol arloko teknikaria.

Nafarroako Gobernua

Toki Araubideko Foru Batzordea

Toki Araubideko Foru Batzordearen bidez, toki entitateek txostena egiten diete Nafarroako Gobernuak toki administrazioaren gaineko eraginarekin prestatzen dituen proiektu arauemaileei. Orain arte zerrendako bilkurak egin dira, adierazten diren gaiak lantzeko:

Otsailak 22

- Kontratu Publikoei buruzko Foru Legearen Aurreproiektua.

Apirilak 11

- Nafarroako berezko hizkuntzak administrazio publikoetan erabiltzeko Foru Dekretuaren Aurreproiektua.
- Apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretuaren Proiektua (foru dekretu horrek Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen du).
- Otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretuaren Proiektua (foru dekretu horrek onesti zuen Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen oporren, lizentzien eta baimenen erregelamendua aldatzea).
- Nafarroako Poliziei buruzko Foru Legearen Aurreproiektua.

Apirilak 27

- Nafarroako berezko hizkuntzak administrazio publikoetan erabiltzeko Foru Dekretuaren Aurreproiektua.

Maiatzak 5

- Apirilaren 4ko 27/2011 Foru Dekretua aldatzen duen Foru Dekretuaren Proiektua (foru dekretu horrek Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen lanaldiaren murrizketa arautzen du).
- Nafarroako administrazio publikoetako funtzionarioen oporren, lizentzien eta baimenen erregelamendua aldatzen duen foru dekretuaren proiektua (otsailaren 9ko 11/2009 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen).

Ekainak 29

- Osasunaren eta gizarte zerbitzuen eremuetan gizarte kontzertuak arautzen dituen Foru Legearen Aurreproiektua.

Urriak 5

- Nafarroako hiriguneen izen ofizial elebidunak erabiltzeko eta grafikoki adierazteko irizpideak ezartzen dituen Foru Dekretuaren Proiektua.

Urriak 18

- Hondakinei eta horien fiskalitateari buruzko Foru Legearen Aurreproiektua.

Azaroak 6

- Nafarroako 2018ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen aurreproiektua.

Azaroak 19

- Foru Legearen aurreproiektua, zeinak martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legea aldatzen baitu (Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzkoa).
- Foru Dekretuaren proiektua, zeinak ezartzen baitu zer baldintza bete behar duten abeltzaintzako ustiatzekiek eta haien instalazioek, Nafarroako Foru Komunitatean, higiene eta osasun arloan, animalien ongizatearen arloan eta antolamendu zooteknikoaren arloan.
- Hitzarmena Kontuen Ganberarekin, IDECAL plataformaren sarbiderako: aditzera ematea.

Nafarroako Gobernuko departamentuen aurrean egindako gestioak

Garapen Ekonomikorako Lehendakariordetza

NUKFK Garapen Ekonomikorako Departamentuarekin egin du lan, Taxiari buruzko Legea aldatzeko foru legearen proiektuan, zeina, azkenean, toki entitateen oniritziarekin onetsi baitzen.

Eskubide Sozialetako Lehendakariordetza

Zenbait jarduketa egin dira departamentu horretako ordezkariarekin ere:

Toki entitateetako langileei prestakuntza emateko ikastaroak, NUPekin lankidetzan

Federazioak hitzarmen bat sinatu du Departamentuarekin eta NUPekin, hiru ikastaro antolatu eta egiteko gizarte zerbitzuetako langileentzat.

Errefuxiatuen protokoloa

Lanak iaz hasita, ekitaldi honetan errefuxiatuei harrera egiteko protokoloa onetsi da azkenean, eta NUKFk parte hartu du, zenbait udalekin batera. Bigarren hiruhilekoan, jarraipenaren lehenengo bilkura egin da.

Ijito etnia gizarteratzeko plan estrategikoa.

NUKF lankidetzan ari da Departamentua etnia horretarako prestatzen ari den plan estrategiko horretan.

Nafarroako Gobernuaren Plan Zuzentzailea Garapen Lankidetzarako

NUKF lanean ari da, orobat, Nafarroako Gobernuko Garapen Lankidetzarako Plan Zuzentzaile berri batean.

Arreta goiztiarra Nafarroako udalerrietan

Lehenago adierazi bezala, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziak eta NUKFk hitzarmen bat izenpetu dute arreta goiztiarraren zerbitzua 3 urtetik beherakoak bizi diren udalerrira hurbiltzeko, edo ahalik eta gertuenera.

Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentua

Nafarroan FEDER funtsei segimendua egiteko Programa Eragilea

Nafarroan programa eragileari segimendua egiteko Batzordean parte hartzen du NUKFk, non egiturazko funtsak aplikatzen baitira 2014-2020 eperako.

Gainbalioei buruzko araudia

Hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zerga (gainbalioa) erregulatzen duen araudian egin aldaketei dagokienez, epaitegiek konstituzioaren kontrako auziak aurkeztu edo epaitu dituzte zenbait puntutan. NUKFk zenbait bilera egin ditu Departamentuarekin egoera aztertzeko.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetako Departamentua

Herritarren partaidetza toki entitateetan

Ondotik zehazten diren ekintzak gauzatu dira, toki entitateetan herritarren partaidetza sustatzeko asmoz, NUKFn sortutako toki entitateen talde eragileak, non Gobernu ere sartuta baitago, sustatutako eta Nafarroako Gobernuarekin izenpetutako protokoloaren barnean:

- Nafarroako Gobernuak herritarren partaidetzari buruzko **lau gidaliburu** argitaratzea, politika lokalaren zenbait alderdien gainean.
- NUKFn bilkura bat egitea, non Zizur Nagusiko Udalak azaldu zien populazio handieneko udalei nolako esperientzia izan duen **parte hartzeko plan bat** prestatzean.
- **Eskualdeetako jardunaldiak** egitea, zenbait toki entitateek esplikatzeko izan dituzten esperientziak eta eztabaidatzeko etorkizuneko aukerei buruz.
- Nafarroako Gobernuak bideo bat egitea, NUKFren elkarlanarekin, **parte-hartzearen esperientziei eta balioei buruz**.

Berdintasuna

Lehenago adierazi den moduan, Federazioak hitzarmen bat sinatu zuen Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin, berdintasunaren arloko politikak sustatzeko esparru lokalean.

Horren barnean, NUKFk jarduketa hauek egin ditu:

- **Diagnostiko** bat prestatzea Nafarroako toki entitateek berdintasunaren arloan dituzten betebeharren eta egoeraren inguruan.
- Txosten konparatu bat prestatzea **sarean lan egiteko formulen gainean**.
- Txosten bat prestatzea **NUKFren barneko berdintasunari buruz**.
- **Jardunaldi** bat egitea, toki entitateek alor horretan legegintzaldian lortu aurrerapenak biltzeko eta berdintasun irizpideak aplikatzeko toki entitateen aurrekontuetan eta kontratazioan.
- Alor horri buruzko **aholkularitza zerbitzu** bat martxan jartzea toki entitateentzat.
- Gidaliburu bat prestatzea **genero ikuspuntua txertatzeko kontratu, diru-laguntza, hitzarmen eta kontzertuetan**.

Berdintasunari, memoria historikoko lekuei eta herritarren partaidetzari buruzko legeak

NUKFk hiru testu arau-emaile horietan lan egin du, eta, horretarako, bilkura batzuk egin ditu zerbitzu teknikoekin Toki Araubideko Foru Batzordera igorri baino lehen; hor, azkenean, aldeko txostena egin die.

Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barne eta Justizia

Irisgarritasun Unibertsalari buruzko Foru Legea

Federazioa elkarlanean aritu zen Lehendakaritza Departamentuarekin lege horren inguruan. Toki entitateen aldeko txostena zuela onetsi zen araua azkenean.

Langileriarri buruzko araudia

Eskubide pasiboiei buruzko araudian zenbait puntu aldatzeko proiektu bat jaso du Federazioak azken egun hauetan. Aztertu ondoan, txostena egin da haren gainean Toki Araubideko Foru Batzordean.

Toki entitateen SITNA foroa

2018an, NUKF lankidetzan aritu da Departamentuarekin toki entitateen SITNA Foroa sortzeko, helburu duena informazio geografikoaren sistema bat sortzea, toki entitateek erabiltzeko. Ildo horretan, jardunaldi bat egin da.

Hezkuntza

0-3 urte bitarteko hezkuntza

Lehenago aipatu den bezala, horri buruzko lan-taldeak bilkura bat egin zuen Nafarroako Gobernuko ordezkariekin, eta horiek etorkizuneko ereduaren ildo nagusiak azaldu zituzten.

Landa Garapena, Ingurumena eta Toki Administrazioa

Ingurumena

Hondakinei buruzko Foru Legea. Alor honetan, lanak egin dira Ingurumena Babesteko Eskuhartzeari buruzko Foru Legea aldatzeko eta Hondakinei buruzko Foru Legeari dagokionez.

Bestalde, NUKFk parte hartu du Departamentuak Klimaren eta energiaren aldeko alkateen hitzarmen bat sustatzeko osatutako batzorde batean.

Toki administrazioa

Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiarekin lan-bilera ugari egin dira gai hauen inguruan:

- **Toki entitateen mapa berrantolatzea.** Aurten, azken hartu-emanak izan ondoren, aldeko txostena egin zaio legearen aurreproiektuari, Parlamentura igorri baino lehen. Txostenarekin batera, zenbait proposamen igorri zaizkio Departamentuari, testua aldatzeko.
- **Toki Inbertsioen Plana.** Aurten, Departamentuak lege bat prestatu du aldaketa batzuk egiteko Toki Inbertsioen Planari buruzko Foru Legean. Horietako gehienek helburu dute Plana sinplifikatu eta biziagotzeko.
- **Inbertsioak handitzea Foru Ogasuneko 2017ko superabitaren kargura.** Federazioak aztertu eta baloratu ditu Departamentuak alor horretan egindakoa.

Landa garapena

NUKFK, halaber, **Nafarroako Landa Garapenerako Planari Segimendua egiteko Batzordean** parte hartzen du.

Animaliak babesteko Foru Legea. Bestalde, Federazioa Animaliak Babesteko Foru Legearen testuan ari da lanean orain, Departamentuko bidezko zerbitzuarekin, eta, horretarako, zenbait bilkura eginak daude.

Abeltzaintzako ustiatzeko higienean eta osasunean bete beharreko baldintzen dekretua. Dekretu horren inguruan, eta Toki Araubideko Foru Batzordean txostena egin baino lehen, NUKFK hainbat lan-bilkura egin ditu Departamentuarekin.

Osasuna

Igerilekuek higiene, osasun eta segurtasun arloan bete beharrekoak.

Departamentuak alor horren gaineko araudia aldatzeko proposamena ezagututa, bilkurak egin ziren toki entitateen irizpideetara egokitzeko; ondoren, foru dekretuari oniritzia eman zitzaion.

Kultura, Kirola eta Gazteria

Departamentu horrekin lanean aritu gara Kultura Eskubideei buruzko Foru Legea onetsi arte.

Bestelakoak

Nafarroako Parlamentua

Agerraldia populazioaren galera dela eta. NUKFKo presidenteak, apirilaren 17an, agerraldi bat izan zuen Parlamentuko Toki Administrazioaren Batzordean, esplikazioak emateko Concejo aldizkarian txosten bat argitaratu zelako Nafarroako udalerri eta eskualdeetako populazioak izan bilakaerari buruz eta populazioaren galeraren arrazoiei buruz.

Hauteskunde-elkarteen gastuaren mugak ekarritako arazoa. Presidenteak, halaber, beste agerraldi bat izan zuen zegokion Parlamentuko batzordean, azalpenak emateko hauteskunde-elkarteen gastuaren mugaren inguruan eta Kontuen Auzitegiak horietako 57ri irekitako jardunen inguruan.

Gai hori dela eta, NUKFk bilkurak egin zituen Parlamentuko talde guztiekin, eta, azkenean, zuzenketa multzo bat igorri zizkion presidenteari, Parlamentuak bidezko legedi aldaketa tramita zezan Gorteen aurrean.

Hautzaroa eta hiria hitzaldia. NUKFk Hautzaroa eta hiria izeneko hitzaldia antolatu zuen, Eskola Kontseiluarekin eta Parlamentuarekin batera.

Gorte Nagusiak

Pablo Azcona Federazioko presidentea bitan bildu da aurten Nafarroak Gorte Nagusietan dituen ordezkariekin, legedian konponbide bat bilatu nahian legeek hauteskunde-elkarte eta alderdi politiko txikientzat ezartzen dituzten gastu mugarako. Lehenengo bilkura Iruñean izan zen, joan den ekainean, eta horretan jakinarazi zitzairen arazoaren nondik norakoa: jarduketak hastea eta, kasu batzuetan, zehapen espedienteak irekitzea, Nafarroako 57 elkarteri. Gero, Kongresuan eta Senatuan bildu zen Azcona talde guztietako Nafarroako ordezkariekin, eta zuzenketa multzo bat aurkeztu zien, haiei esker Federazioak kendu nahi baititu 2019ko hauteskunde kanpainarako dauden oztopoak.

Espainiako Gobernuak Nafarroan duen ordezkartza

José Luis Arasti Nafarroako Gobernuak Nafarroan duen ordezkari izendatu ondoren, Federazioko burua harekin elkartu zen bi entitateen interesekoak diren gaiak aztertzeko.

Kontuen Ganbera

NUKFk hartu-emanak ditu maiz Kontuen Ganberarekin. Hauek dira landutako gaiak:

- Toki sektore publikoari buruzko txostena.
- Prestakuntza. Ganberako langile teknikoek NUKFren ikastaro batzuetan parte hartzen dute, toki entitateentzako Etengabeko Prestakuntzaren Planaren barnean.

Bestalde, otsailaren 16an, Asun Olaechea Ganberako burua Federazioko presidenteari bildu zen NUKFren egoitzan, bi entitateen interesekoak diren gaiak aztertzeko.

Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioa

Presidenteak eta presidenteordeak parte hartu zuten EUPFko Lurralde Kontseiluaren bileretan, zeinaren parte baitira Ribaforadako eta Monteagudoko alkateak ere.

NUKFko presidentea eta idazkari nagusia EUPFko idazkari nagusiarekin bildu dira, entitate horren babesa lortzeko hauteskunde-elkartearen arazorako.

Azkenean, aipatu beharra dago bi entitateek jardunaldi bat antolatu zutela Iruñean, joan den azaroaren 15ean eta 16an, toki entitateetan administrazio elektronikoa ezartzeko.

Udalerrien lurralde federazioak eta hautetsien elkarteak

Urtearen amaierarako, Federazioko zerbitzu teknikoak lanean hasi dira ezagutzeko zer eredu duten lurralde federazioek, zer jarduketa egiten duten eta zer egitura organiko eta tekniko duten horretarako.

Halaber, NUKFk azterlan bat prestatu du emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna dela-eta egiten diren jarduketei buruz.

Horretarako, harremanetan aritu gara aztertutako entitateekin, zuzenean lehenengo kasuan, eta, bigarrean, aholkularitza enpresa baten bidez, zeinari berdintasun arloko lan batzuk esleitu baitzaizkio.

NELS sarea

NUKF lankidetzan ari da Jasangarritasunaren aldeko Nafarroako Toki Entitateen sarearekin (NELS). Gainera, NUKFko teknikari batek parte hartu du Toki garapen jasangarriko jardunbide egokien sarien epaimahaian (Nafarroako Gobernuak egin du horren deialdia, aurten lehendabiziko aldiz).

UEMA

Pablo Azcona NUKFko presidentea UEMAko ordezkariekin elkartu zen (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea), entitate horrek eskatu ondoan; bere burua eskaini zion NUKFri bion intereserako gaietan aholkularitza emateko.

Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Unibertsitate horrek antolatu eta irakatsi behar ditu oinarrizko gizarte zerbitzuei buruzko hiru ikastaro, NUKFk, unibertsitateak berak eta Eskubide Sozialetako Departamentuak hitzartutakoak.

ANIMSA

NUKF lankidetzan aritzen da maiz ANIMSArekin. Aurten, prestakuntza ekintzak izan dira elkarlan horren emaitza nagusia, batetik, administrazio elektronikoa martxan jartzeko eta, bestetik, inbentarioen programa ezartzeko, bi entitateek hitzarmena izenpetu ondoan.

Sindikatuak

NUKFk Prestakuntzaren Batzorde Paritarioan hartzen du parte. Gainera, urtero bilkurak egiten ditu Etengabeko prestakuntzarako akordioa sinatu duten sindikatuarekin ekitaldi bakoitzean toki enplegatuen prestakuntza plana prestatzen dela. Horren inguruan beharrezko txostena egiten dute.

Elikagaien Bankua

Federazioak, halaber, sustatzen du udalek lankidetzan izatea bankuarekin, zeinak elikagaiak banatzen baititu Nafarroako udalerri askotan.

Aurten, Pablo Azcona presidenteak bilkura bat izan zuen Bankuaren egoitzan Joaquín Fernández Eraso bankuko presidenterekin, bi entitateen arteko lankidetzaz berraztertu eta bultzatzeko asmoz.

GGKEen Koordinatzailea

NUKFK, aurten ere, ohiko hitzarmena izenpetu du Koordinatzailearekin, elkarrekin sentikortasun eta dibulgazio jarduketak egiteko eta horrek aholkularitza eta babes emateko hala eskatzen duten udalei.

Nafarroako saharar ordezkariak

Federazioak hitzarmen bat izenpetu du aurten Nafarroako Saharar Ordezkaritzarekin, elkarlanean aritzeko, finantzazioa emateko errefuxiatuen kanpalekuetako lankidetzaz proiektuei eta "Bakeko oporrak" izeneko programari, zeinari esker ume askok pasatzen baitute uda Nafarroan, eta babeserako beste ekintza batzuk sustatzeko.

Gainera, aurten ere Federaziora etorri ziren bisitan joan den udan Nafarroako harrera-familiekin aste batzuk pasatzen ari ziren saharar ume batzuk.

Bukatzeko, aipatu beharra dago Batzorde Betearazleko bi kide saharar kanpalekuetara joan zirela Saharar Errepublikari Arabiarren aldarrikapenaren urteurrenean, Nafarroako eta beste autonomia erkidego batzuetako ordezkariarekin batera.

La Caixa eta Caja Navarra banku fundazioak

Bi fundazioek finantzatu dute NUKFren deialdia hiri eremuak berreskuratzeko. Horren bidez, materialen kostua ordaintzen da babestutako enplegu sozialarekin hiri eremuetan egiten diren obretan. Aurten, 90.000 eurokoa izan da ekarpena. Aurrerago emanen da informazioa programa horren inguruan.

EGITURA

Giza baliabideak

Joan den martxoaren 13tik aurrera José Ángel Ipiña aritzen da administrazio alorrean, aldi baterako baja bat betetzeko.

ZERBITZUAK TOKI ENTITATEEI

Aholkularitza zerbitzua

NUKFko egitura teknikoak jarraitu du aholkularitzaren ohiko zerbitzua ematen toki entitateei, dela bere ekimenez, dela modu desberdinetan egiten zaizkien galderari erantzunez (aurrez aurre, telefonoz, posta elektronikoz bidez, idatziak etab.).

Ohikoa den moduan, ekitaldiaren bukaerarako, kontsultak milatik gora izanen dira.

Laguntza edo lankidetzak langileak hautatzeko epaimahaietan

Zenbait kasutako aholkularitza puntuala alde batera utzita, langileak hautatzeko epaimahai hauetan parte hartu dute edo ari dira parte hartzen Federazioko teknikariak:

Idazkaritza, letradu edo idazkaritza/kontu-hartzailak lanpostuak

Arroizko Udala
Ezkabarteko eta Olaibarko Udalen Batasuna
Torralba del Rioko, Esproncedako eta Azueloko Udalen Batasuna
Barañaingo Udala
Baztango Udala
Berriobeitiko Udala
Etxarri Aranazko Udala
Ezkurrako, Eratsungo eta Saldiasoko Udalen Batasuna
Murchanteko Udala
Donamariako, Beitza-Labaiengo, Oizko eta Urrozko Udalen Batasuna.
Orkoiengo Udala
Erronkariko eta Urzainkiko Udalen Batasuna
Miranda Argako Udala
Zubietako eta Iturengo Udalen Batasuna

Kontu-hartzailak lanpostuak

Buñuelgo Udala
Cascanteko udala
Etxarri Aranazko Udala
San Adriango Udala

Administrari laguntzailearen edo ofizialaren lanpostuak

Burgiko Udala
Tebas-Muru Artederretako Udala
Uharte Arakilgo Udala
Ultzamako Udala
Etxarri Aranazko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea
Leringo Udala
Altsasuko Udala

Txostenak prestatzea

Federazioko zerbitzu teknikoek entitateko organoetatik eskatzen zaizkien adina txosten prestatzen dituzte. Gainera, beste batzuk prestatzen dituzte hala eskatzen duten toki entitateentzat. Aurten, hauek egin dira:

- Txosten bat familia-langileei lanaldia luzatzeko aukerari buruz.
- Txosten bat soldatarik gabeko baimenaz udal idazkariak egin eskaerari buruz.
- Txosten bat entitatea Nafarroako Gobernuako langileen hitzarmen kolektiboari atxikitzeke aukerari buruz.

Udalkideen prestakuntza, ikastaroak, hitzaldiak eta jardunaldiak

NUKF etengabe aritu da dibulgazio, prestakuntza eta informazio jardunak egiten hautetsi eta toki teknikarientzat. Berehala bukatuko den urte honetan, jarduera hauek egin ditu:

- Haurtzaroa eta hiria jardunaldia, Eskola Kontseiluak antolatua, Parlamentuaren eta NUKFren lankidetzarekin.
- Datu pertsonalak babesteko araudi berriari buruzko jardunaldia.
- Herritarren partaidetzari eta teknologia berriei buruzko jardunaldia.
- Toki entitateetan berdintasun arloko politikak garatzeko jardunaldia.
- Administrazio elektronikoa ezartzeko jardunaldia.

Komunikazioa eta argitalpenak

Komunikazioaz bezainbatean, 2018ko jarduketa hauek nabarmentzen dira, besteak beste:

Concejo aldizkaria

NUKFren aldizkaria toki entitate eta hautetsi guztiei banatzen zaie. Urtea bukatu aurretik, 8 ale argitaratuko dira; hau da, ale bat hilabete bat eta erdi bakoitzeko. Ohikoa den moduan, hautatu berriei aukera eman zaie aldizkaria paperez edo formatu digitalean (PDFa) jasotzeko, edo ez jasotzekoa, hala nahi izanez gero.

Gainera, birdiseinatu da argitalpenaren maketa, irudia eguneratzeko eta euskarak toki handiagoa izateko orrialdeetan.

Informazio buletin digitala

Formatu digitaleko buletin hau Interneten harpidetza egiten dutenei igortzen zaie. Hamabost egunean behin ematen da argitara, gutxi gorabehera, eta intereseko informazioak, berriak eta toki intereseko deialdiak biltzen dira bertan.

Legedi Buletin digitala

Ostiralero, NUKFk buletin hau igortzen die harpidedunei, Estatuko eta Nafarroako aldizkari ofizialetan argitaratutako legediarekin. Horrek bide ematen du aldizkari horien web orri digitaletan zuzenean sartzeko.

NUKFren webgunea

Webguneak ohiko atal eta edukiei eutsi die, eta oso maiz eguneratzen da.

Twitter.

Urtearen erdialdean, NUKF Twitter sare sozialean hasi zen, oso arrunta baita orokorrean zein esparru politikoan. Sare horretan arituz hedapen handiagoa lortuko da webguneko edukietarako.

Hartu-emanen gizarte komunikabideekin

Gizarte komunikabideekin hartu-emanen kapituluan, aurten, NUKFk hogeita bat prentsa-ohar prestatu ditu bere jardunari buruz eta erregulartasunez heldu die komunikabideekin egin dituzten informazio eskaerei.

Etengabeko Prestakuntza Plana Nafarroako toki enplegatuentzat

2018an, NUKFk beste behin gauzatu du etengabeko prestakuntza plana toki entitateetako langileentzat. Plan hori Etengabeko prestakuntzaren esparru akordioaren barnean dago, zeina administrazio publikoek eta UGT, CCOO, CSI-CSIF eta CIG sindikatuek sinatu baitzuten.

Aurten, 156.290 euroko diru-laguntza eman zaio Federazioari, bi fasetan ordaintzekoa. Lehenengoaren zuzkidura 93.774 eurokoa da. Horietatik, 39.072,50 euro jaso dira, aurrerakin gisa.

Guztira, 149 prestakuntza ekintza egin edo egingen dira urtea bukatu aurretik, 81 ikastarotan (horietako batzuk behin baino gehiagotan egiten dira).

3.312 eskaera jaso ditugu, nahiz eta erantzun gabe egon deitzeko dauden berariazko ikastaroen eskaera guztiak; hortaz, eskaera-kopuru hori handiagoa izanen da urtea bukatzen denerako. Txosten hau egiteko unean, ikastaro guztiak itxi gabe daude.

Honako hauek dira urtea bukatu baino lehen egin diren edo egiteko dauden ikastaroak:

IKASTAROA	Zenbat aldiz
ALOR JURIDIKO-ADMINISTRATIBOA	
Administrazio Prozedurari buruzko 39/2015 Legea. On line	1
Sektore Publikoari buruzko 40/2015 Legea. On line	1
Administrazio elektronikoari buruzko jardunaldiA	1
Tokiko kontratazio publikoaren esparru berria	2
Administrazio elektronikoaren hastapenak. On line	1
Datuak Babesteko Europako Erregelamenduari buruzko jardunaldia. On line	2
Txostenak egiteko teknikak. On line	1
Artxiboak kudeatu eta antolatzea	1
Mekanografia. On line	1
LANGILERIA ETA LANEKO ARRISKUEI AURREA HARTZEA	
Nominak eta Gizarte Segurantzaren kotizazioak prestatzea	1
Laneko arriskuen prebentzioa. Erdi-presentziala	2
Bizkarreko minari aurre hartzea	7
Lehendabiziko sorospenak eta desfibriladorea erabiltzea	4
Lehen sorospenak	4
Estresari aurre egitea eta kontrolatzea	2
Suak itzaltzea	3
TOKI OGASUNEN ALORRA	
Aurrekontuen egonkortasuna aplikatzeko berritasunak: plan ekonomiko-finantzarioak	2
Aurrekontuen egonkortasunaren oinarritzko ikastaroa	1
Udal zergak	1
Kontabilitate publikoa eta aurrekontuen kudeaketa	1
Zerga-kudeaketa eta diru-bilketa. GIA	2
Diru-laguntzen kudeaketa	2
KUDEAKETA PUBLIKORAKO ETA KALITATERAKO BALIABIDEAK	
Trebetasun sozialak gatazkak konpontzeko	1
Trebetasun sozialak herritarrei arreta egiteko. On line	1
Trebetasun sozialak jendea hartzeko	3
Pertsona arteko harremanak eta lan-taldea	1
Zuzendariaren trebetasunak eta taldeen kudeaketa	1
Denboraren planifikazioa eta erabilera eraginkorra. On line	1
Nola hobetu lana bulegoan. Ordu gehiago behar lanaldian?	1
Herritarren partaidetza eta garapen komunitarioa	1
Ikerketa, ebaluazioa, erabakia eta esku-hartzea haurrak babesik gabe gelditzen direnean: sareko lanaren garrantzia.	1
KULTURA, KIROLA, GAZTERIA ETA BERDINTASUNA	
Aretoko langileentzako ikastaroa	1
GIZARTE ZERBITZUAK	
Dementia dutenekin lan egitea	4
Zainketa aringarriak. Tailerrak	2

Mendekotasuna dutenen mobilizazioa	6
Prestakuntza sistemikoa eta kasuen ikuskapen klinikoa	3
Ekipoen kudeaketa zahar-egoitzetako langileentzat	2
Emozioen kudeaketa. Mindfulness-a	6
Lehendabiziko sorospenak arreta geriatrikoan	5
Oinarrizko erizaintza gerokultoreendako	4
Pertsona ardatz duen arreta	1
ZERBITZU ANITZAK ETA LOREZAINNTZA	
Eraikinetako oinarrizko mantentze-lanak	1
Elektrizitatearen eta argiteriaren ikastaro aurreratua	1
Plataforma jasotzaile mugikorak (3A eta 3B kat)	1
Garaierako lanak	1
Atzerako hondeamakina gidatzea	1
Garabi telespikoaren gidaria	1
Eskorga kontrapisatuak eta atzeragarriak, 10.000 kg arte jasotzekoak	1
Mastako orga jasotzailea, 10.000 kilo arteko karga zintzilik eramateko. Hastapenak	1
Bost Sak: nola antolatu eraginkortasunez lan ingurunea	1
Antolatu, txukundu eta garbitzea (5 Sak). II. maila	1
Lorategien ureztaketa	1
Soropilak erein eta zaintzea	1
Motozerra eta esku-motosega erabiltzea	1
Produktu fitosanitarioak erabiltzea	1
Kaleetako zuhaitzak inaustea	1
Hiriko zuhaitzak inaustea	1
Berdegunetako izurrien kudeaketa integratua	1
Lorezaintzarako makinak	1
HAURK ESKOLAK ETA MUSIKA ESKOLAK	
Lehenbiziko sorospenak haurrentzat	1
Hezkuntzarako lekuak eta materialak	1
Emozioen hezkuntza	1
Adimen emozionala hartu-emanak hobetzeko lankideen artean eta ikasleekin	1
UDALTZAINGOAK	
Genero indarkeriari aurre egitea poliziaren aldetik	1
INFORMAZIO SISTEMAK	
Word 2007.On line	4
Word 2007 aurreratua.On line	3
Excel 2007. On line	4
Excel 2007 aurreratua.On line	3
Access 2007. On line	4
Access 2007 aurreratua. On line	3
Power Point 2007. On line	4

Ziurtagiri elektronikoa. On line	1
Outlook 2007. On line	4
Instagram. Gazteen sare soziala ulertzea	1
Facebook. Herritarrekin komunikatzeko tresnak	1
Hodeia eta Google Apps	1
Prezi Next. On line	1
Prezi Next, aurkezpen errazak eta orijinalak egiteko moda berria	1
Autocad, Maps eta GIS	1
Publizitate kartelen diseinua	1
Canva, diseinua diseinatzaile ez direnentzat: zure posterrak, irudiak, liburuxkak, etab. sortzea.	1

Garapenerako lankidetzak

Nafarroako Garapen Lankidetzarako Toki Funtza

Nafarroako Garapen Lankidetzarako Toki Funtsean, zeina NUKFk kudeatzen baitu hala agintzen dioten toki entitateentzat, 131 toki entitate daude hari atxikita aurten behin-behinekoz (azaroaren 2an).

Dohaintzan emandako baliabideak hiru programatarako erabili dira: urteko proiektuen deialdia, hirurtekoko proiektuaren deialdia eta GGKEen Koordinatzailearekin dagoen hitzarmena.

Honako hauek dira Funtsean parte hartzen duten entitateak:

Ablitas, Ageza, Aguilar Kodes, Aiegi, Aizpurgi, Aldaba, Altsasu, Añezkar, Añorbe, Araitz, Arantza, Aras, Arbontze, Arraitz-Orkin, Artabia, Artazu, Aurizberri, Azketa, Azotz, Azpirotz, Azuelo, Barañain, Barasoain, Bearin, Beire, Beorburu, Beraskoain, Berbintzana, Berriobeiti, Berriogoti, Betelu, Bidaurreta, Biurrun-Olkoz, Burlata, Caparros, Carcar, Cordovilla, Domeñu, Dorre Elortzibar, El Busto, Elkartea, Elortz, Eneritz, Eraul, Ergoiena, Eritzebeiti, Errezu, Erromantzatua, Esteribar, Etaiu, Etxarrentxulo, Etxauri, Eultz, Ezkabarte, Ezkaroze, Ezporogi, Gaberderal, Galipentzu, Galoze, Garralda, Geserlocal, Girgillao, Gorozin, Gorza (kontzejua), Gulia, Hiriberri Artzibar, Igantzi, Iguzkitza, Imotz, Iraizotz, Iruña, Iruñerriko Mankomunitatea, Irurre, Iturgoien, Itza, Izarreibarko Mankomunitatea, Kaseda, Lakar, Lantz, Lapoblación, Larrion, Ledea, Legarda, Leitza, Lekunberri, Leotz, Lerate, Lesaka, Lodosa, Los Arcos, Lukin, Luzaide, Mairagako Mankomunitatea, Makirriain, Mañeru, Martzilla, Melida, Mendabia, Mendaza (kontzejua), Metauten (kontzejua), Mezkiritz, Miranda Arga, Murillo el Cuende, Nabaskoze, Nabaskoze (kontzejua), Nazar, NUKF, Ollaran, Ollobarren, Oltza, Orkoien, Orokieta-Erbiti, Orontze, Pitillas, Sagaseta, Santsol, Saratsa, Sartaguda, Sunbilla, Tebas, Tebas-Muru Artederreta, Tirapu, Ukar, Ultzama, Urbiola, Urraulbeiti, Urritzola, Urroz, Ustaize, Viana, Villafranca, Zangoza Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitatea, Zubielki eta Zufia.

Diru-sarrerak, guztira (azaroaren 4an): 173.032,53 €

2017ko saldoa: 1.704, 04 €

Urteko deialdia

Urteko deialdiaren bidez, guztira bost proiektu finantzatu ahal izan dira garapen bidean dauden herrialdeetan (120.000 euro).

Honako hauek dira hautatu diren proiektuak:

- PROIEKTUA:** Edateko ura eta saneamendua ematea Txaden errefuxiatu diren sudandarrentzat

HERRIALDEA: Txad.

GGKE: UNHCR Nafarroa.

JARDUERAK: 8 putzu lehengoratzeari, mantentze-lanak egitea eta ponpa paratzea. Sareetako mantentze-lanak egitea kanpalekuetan. 75 txorrota paratu edo konpontzea, 10 ponpa konpontzea. Mantentze-lanak egitea 5 ponpa elektrikotan eta sorgailuetan. Uraren tratamendua aldi horretan. Bi maila freatikoren jarraipena. 450 komun egitea. Ura kudeatzeko 21 batzorde sortu eta eratzea. 200 kit banatzea hondakinak kudeatzeko (baldeak, tresnak...). Horietako bakoitza 50 lagunentzat da.

DIRU-LAGUNTZA: 24.000 €
- PROIEKTUA:** Programa integral pilotua hezkuntzarako eskubidea itzultzeko Tensgombgdo herriko haurrei (Passoré probintzian).

HERRIALDEA: Burkina Faso.

GGKE: Manos Unidas.

JARDUERAK: Ikastetxe bat egitea eta hornitzea, hiruna ikasgelako bi bloketan. Irakasleentzako bulegoa, sei ostatu irakasleentzat, biltegia, ur putzua, komunak. Segimendu batzorde bat eratzea eta ikastetxea kudeatzea. Osasun jarduerari buruzko sentikortasun ekintzak. Gurasoen elkarrekin eratzea.

DIRU-LAGUNTZA: 24.000 €
- PROIEKTUA:** Ur hornidura eta saneamendua hobetzea, eta hari lotutako jarduerak egitea Lehenengo Hezkuntzako ikastetxeetan eta landa komunitateetan Ginea Bissau (II. fasea).

HERRIALDEA: Ginea Bissau.

GGKE: UNICEF – Nafarroako Batzordea.

JARDUERAK: Ur hornidurarako instalazioak eraikitzea edo, kasua bada, eraberritzea (ponpa sistema egokiekina), baita konketak eta komunak, sexuen arabera bereziak. Programa bat garatzea ez obratzeko aire zabalean. Higiene klubak sortzea eskoletan. Prestakuntza instalatuetako sistemen erabileraz. Sentikortasun kanpainak.

DIRU-LAGUNTZA: 24.000 €
- PROIEKTUA:** Edateko uraren hornidura egitea eguzki energiaren bidez Boli Kostako hego-mendebaldeko landa eremuak garatzeko (Nero-Boupé).

HERRIALDEA: Boli Kosta.

GGKE: RODE fundazioa

JARDUERAK: Ur putzu bat egitea, eguzki bidezko ponpa paratzea, urontzia, ubideak eta sei hargune toki desberdinetan.

DIRU-LAGUNTZA: 24.000 €

- **PROIEKTUA:** Osasun arloko laguntza Gakenke barrutian (Nembako ospitalearen eraginpeko eremua).

HERRIALDEA: Ruanda.

GGKE: Medicus Mundi Nafarroa-Aragoi-Madril.

JARDUERAK: Osasun etxeko txertaketa eraikina eraberritzea.

DIRU-LAGUNTZA: 24.000 €

2016-2018ko hiru urteko proiektua

Ekitaldi honetan, Rode fundazioak hiru urteko proiektuan (Lehorteak eragindako gosetearen kontrako ekintza integrala Kokuselei eskualdeko hiru komunitatetan, Ipar Turkanan, Kenyan) aurreikusitako jarduerak egin dira. Proiektua 2016ren amaieran jarri zen martxan, lankidetzak hitzarmen bat sinatu ondoan Barañaingo, Burlatako eta Eguesibarko udalen, Iruñerriko Mankomunitatearen eta NUKFren beraren artean (azken hura Garapen Lankidetzarako Funtsa ordezkatzuz). Garapen Lankidetzarako Funtsak 35.000 euroko ekarpena egiten du urtero.

Proiektuak era integralean erantzuten dio Ipar Turkanan, Kokuselei eskualdean izandako lehorte luzeen ondorioz sortu den goseteari (Ngameriek, Alagama eta Ekurrunchanai). Herritarrik ahulenak lehenesten dira: emakumeak eta 6 urtetik beherako umeak, herritar osasuntsuak abiapuntu hartuta, oinarrizko baliabide eta azpiegiturekin, oraina eta geroa duinagoa izan dadin denontzat. Lau esparru ditu jomuga: ura (3 eguzki ponpa, askak abereek edateko, ura eramatea: itzaleko ikasgela, itzaleko ikasgelako sukaldea, dutxak, baratzea...), osasuna (herritarrak aldi berean behin aztertzea, batez ere umeak, klinika mugigarri batekin), nekazaritza (3 auzo baratze martxan jartzea nekazaritza ezagutzen ez duten komunitateetan, prestakuntza ematea laborantzarako...) eta haurren elikadura (210 haurren desnutrizioaren arreta eta prebentzioa...), etab. Proiektu bakoitzaren bukaeran, hiru komunitateetako bakoitzean honako hau izanen dute: putzu bat, eguzki ponpa, ur biltegia, itzaleko ikasgela bat haurrentzat, sukalde bat amek elikagaiak prestatzeko, dutxak, komunak, elikagaien biltegia, baratzea, haurrak eta herritarrak elikatzeko, eta, soberakinak izanez gero, saltzeko...

Joan den ekainean, Turkanan (Kenya) hiru urteko proiektua gauzatzen ari den GKE kontrako alderdiaren 2 ordezkari etorri ziren Nafarroara. Hiru egunean, azalpenak eman zizkieten entitate finantzatzaileei, proiektua aurkeztu zuten Nafarroako Unibertsitatean, bilerak izan zituzten eragile sozialekin eta abar. Gainera, proiektuaren hedapenaren eta sentikortasunaren atalean, elkarrizketa bat eman zuten Pamplona irratian. Hor, kontatu zuten nolakoa den bizitza hango komunitateetan eta zer garrantzitsua den proiektua.

Hitzarmena GGKEen Koordinatzailearekin

NUKFK aurten ere lankidetzaren hitzarmen bat izenpetu du Nafarroako GGKEen Koordinatzailearekin, helburua izanik hari atxikitako GGKEen jarduketak Nafarroako udalerrira eta kontzejuetara hurbiltzea eta haiei aholkularitza ematea toki entitateek lankidetzaren arloan egiten dituzten laguntza deialdiei buruz.

Hiri eremuak berreskuratzeko diru-laguntzen deialdia

Ekitaldi honetan hitzarmen berri bat sinatu da La Caixa eta Caja Navarra fundazioekin, 90.000 euroko ekarpenarekin. Oraingo honetan, berrogeita hamazazpi toki entitatek aurkeztu dituzte finantzazio eskaerak. Orain, azterketa fasean daude, geroago ebazteko.

BESTE ZERBITZU BATZUK

Geserlocal

NUKFK sortu zuen bere garaian Geserlocal sozietatea (haren akziodun nagusia da), Lizarrako, Zangozako eta Erriberriko merindadeburuekin batera, helburua izanik kalitatezko zerbitzuak eskaintzea nahitaezko diru-bilketaren arloan Nafarroako toki entitateei, baita horiek eska ditzaketenen beste zerbitzu batzuk ere. Orain arte, kontularitzaren kudeaketarako laguntza ematekoak eta borondatezko epean isunak jasotzekoak izan dira zerbitzu horiek.

2017ko azaroaren 1etik 2018ko urriaren 30era bitartekoak dira txosten honetako datuak.

Nahitaezko diru-bilketaren zerbitzua

331 dira Geserlocal SLrekin premiamendu bidezko diru-bilketan laguntzeko zerbitzua kontratatua duten toki entitateak, horren barnean direla udalerriak, kontzejuak, mankomunitateak eta ureztatzaileen elkarteak.

Epe horretan kudeatu den zor bolumena 60.793.910,92 eurokoa da, lehenago aipatutako entitateei dagokienez. Kudeatu den zor bolumenetik, 7.760.219,24 euro ebatzi dira. Horietatik, 5.568.436,14 euro dira kobrantzakoak. Kudeatutako zorraren zenbatekoak nahiz ebatzitzako zorrarenak zenbateko nagusiei dagozkie, kanpoan direla errekarguak eta kostak.

Kontularitza publikoaren gaineko aholkularitza zerbitzua

Kontularitza publikoaren gaineko aholkularitza zerbitzuaren barnean, 36 udalerritan, 49 kontzejutan eta 4 mankomunitatetan egin da zerbitzu hori.

Epe horretan, 204.619,81 eurokoa izan da fakturazioa kontularitza publikoaren arloko zerbitzuak egiteagatik.

Isunak borondatezko epean biltzeko zerbitzua

51 udaletan ematen da isunak borondatezko epean biltzeko zerbitzua.

Aztertu den epearen barnean, 4.766 espedienteren kudeaketa hasi da, epe horretan egindako salaketei baitagozkie. Epe horretan kudeatu diren espediente guztietatik, 2.525 espediente kobratu dira. Zenbatekoa, guztira, 175.526 eurokoa da.

Elektrizitate konpainiak

NUKFK jarraitu du %1,5eko tasaren kobrantza kudeatzen 565 toki entitaterentzat.

Honako hauek dira ekitaldian zehar kudeatu diren zenbatekoak, 2017ko 4. hiruhilekoari eta 2018ko 1., 2. eta 3. hiruhilekoei dagozkienak:

	ZENBATEKOAK	Toki entitateen kopurua	
Iberdrola	2.981.477,16 €	421	
Endesa	1.151.175,36 €	370	
EDP merkaturatzailea	74.906,81 €	106	
EDP; CHC; CIDE	255.972,09 €	162	
Acciona Green	4.477.435,83 €	47	
Goiener	10.292,77 €	125	
Enagas	47.808,24 €	45	
Gas Natural Fenosa	1.842.081,34 €	218	2. hiruhilekotik aurrera, Naturgy izena hartu du konpainia horrek
Viesgo Energía	10.864,4 €	186	3. hiruhilekoa kobratzeko
Electra Valdizarbe	7.416,74	17	
Xenera	966,77	15	Konpainia berria, 2018an hasi gara hura kudeatzen

Lokalak lagatzea

Ohikoa den moduan, NUKFK bere lokalak utzi die hala eskatu duten entitateei bilkurak egiteko edo prentsa biltzeko.